

F. ANTZEKO LANETARAKO ONDORIO OROKORRAK

Diagnostikoari eta proposamenei buruzko ataletan jasotako genero-ikuspegia Zumaia HAPOn txertatzeari buruzko berariazko ondorio eta proposamenetatik haratago, lan honetatik abiatuta ondorio orokor batzuk atera dira, udal-plangintzan eta hirigintzan (zehazkiago, Hiri Antolamenduko Plan Orokorretan (HAPoetan)) genero-ikuspegia txertatzera zabal daitezkeenak. Horiek adibide zehatz hau orokorrean aplikatzen lagun dezaketela uste da. Horretaz gain, diru-laguntzaren aginduari buruzko ondorio batzuk ere azalduko dira.

F.1 DIRULAGUNTZAREN AGINDUARI ETA HORREN OINARRIEI BURUZKOAK

F.1.1 LANA EGITEKO FASEARI ETA EPEARI DAGOKIONEZ

Genero-ikuspegia txertatzea, eraginkorra izan dadin, hasieratik egin behar da.

Plangintza orokorreko kasuetan, diru-laguntzaren oinarriek hasierako fasetzat hartzen dituzte Aurrerakina eta Hasierako Onespina, eta kanpoan uzten dute informazio- eta diagnostiko-fasea.

Aurrerakin fasea, izenak adierazten duen bezala, Plana nondik joan daitekeen aurreratzen duen fasea da, eta Hasierako Onespenaren fasean lehen zirriborro osoa (araudia barne) sortzen da. Biak proposamen-faseak dira; izan ere, diagnostikoa horien aurreko fasean egiten da (Informazio eta Diagnostiko fasean).

Praktikan, horrek esan nahi du diagnostikoa genero-ikuspegitik dagokion fasearen kanpo edo ondoren egiten dela, eta, ondorioz, adabaki gisa hautemateko edota beranduegi egiteko arriskua dagoela, diagnostiko orokorrean sakontzeko eta behar bezala egiteko (osatze eta/edo zuzentzeko) lan bat egin ordez.

Hala ere, Informazio- eta Diagnostiko-fasean genero-ikuspegia txertatzeko lanak egiteak lana diagnostikoan soilik edo gehiegi oinarritzeko arriskua dakar, eta proposamenak proposatuko den ereduarekin eta hari lotutako proposamenekin inolako loturarik gabe egiteko arriskua, horrek daraman zerikusi faltarekin, eta, ondorioz, ostean inplementatzeko zailtasun handiagoarekin.

Horren harira, diru-laguntzaren epeen (urtebetetik beherakoak) eta plangintza orokorraren berezko epeen (zenbait urtekoak) arteko egokitzapen falta adierazi beharra dago, bai eta, batzuetan, lanak modu logikoan eta behar den denborarekin egiteko zailtasuna; izan ere, askotan, plangintza orokorra eten egiten baita hainbat arrazoiengatik (informatzeko epeak (txosten

F. CONCLUSIONES GENERALES EXTRAPOLABLES A TRABAJOS DE SIMILAR NATURALEZA

Más allá de las conclusiones y propuestas específicas en relación con la integración de la perspectiva de género en el PGOU de Zumaia, plasmadas en los apartados relativos al diagnóstico y las propuestas, a partir del presente trabajo se extraen unas conclusiones generales extensibles a la integración de la perspectiva de género en el planeamiento municipal y el urbanismo, más concretamente, en los Planes Generales de Ordenación urbana (PGOU), que se consideran pueden ayudar a la aplicación general de este ejemplo concreto, además de una serie de conclusiones acerca de la Orden de subvención.

F.1 RELACIONADAS CON LAS BASES Y LA EXISTENCIA DE LA ORDEN DE SUBVENCIÓN

F.1.1 RESPECTO A LA FASE Y EL PLAZO EN LOS QUE SE DEBE REALIZAR EL TRABAJO

La integración de la perspectiva de género, a fin de que sea efectiva, debe realizarse desde el principio.

En los supuestos de planeamiento general, las bases de la orden de la subvención contemplan como fases iniciales las de Avance y Aprobación Inicial, dejando fuera la fase de Información y diagnóstico.

Si bien la fase de Avance, tal como indica su nombre, es la fase en la que se avanza por dónde podría ir el Plan, y la de Aprobación Inicial da lugar al primer borrador completo (normativa incluida), lo cierto es que las dos corresponden a fases propositivas, siendo la de diagnóstico la fase anterior a ambas (Fase de Información y Diagnóstico).

En la práctica, ello supone que el diagnóstico desde la perspectiva de género se realiza en una fase posterior o fuera de la fase en la que correspondería hacerlo, con el consiguiente riesgo de que sea percibido como un parche y/o realizado demasiado tarde, en lugar de un trabajo para profundizar y realizar correctamente el diagnóstico general (completándolo y/o corrigiéndolo).

No obstante, realizar los trabajos para la integración de la perspectiva de género en la fase de Información y Diagnóstico conlleva el riesgo de que el trabajo se centre en el diagnóstico, y las propuestas se realicen sin ninguna relación con el modelo que se propondrá ni con las propuestas ligadas al mismo, con la consiguiente falta de relación, y, por ende, mayor dificultad para su implementación posterior.

Ello nos lleva a reflexionar acerca de la falta de acompañamiento entre los plazos de la subvención (menores de un año) y los propios del planeamiento general (varios años), y la dificultad, en ocasiones, para realizar los trabajos en plazo de manera lógica y con el tiempo necesario, puesto que, muy a menudo, el planeamiento general se paraliza por diversos motivos (plazos para informar (informes sectoriales), elecciones,

sektorialak), hauteskundeak, udaldia (partaidetzaren kasuan), txosten sektorialen arteko kontraesanak edota eztabaidak, horiek tokiko autonomiarentzat sortzen duten desegokitasunagatik, etab.).

F.1.2 HAINBAT ERAGILEREN INPLIKAZIOARI DAGOKIONEZ

Funtsezkoa da herritarren, administrazio sustatzailearen eta erredaktore-taldearen inplikazioa, eta, ondorioz, partaidetza eta prestakuntza.

Herritarren kasuan, legez ezarritakoa betetzetik haratago doazen eta lan honetan jada azaldu diren hainbat arrazoiengatik; laburbilduz: azaleratzea, ahalduntzea eta ez duelako zentzurik pentsatzea genero-ikuspegia modu egokian eta interseksionalean txerta daitekeela, hain zuzen ere, ikuspegi hori dutenak kontuan hartu gabe, besteak beste.

Administrazio sustatzailearen kasuan, berak hartzen baititu erabakiak, ez bakarrik plangintza idazteko prozesu osoan, baita ondorengo aplikazioan ere.

Eta erredaktore-taldearen kasuan, txertatzea konbentzimenduz eta modu eraginkorrean egin dadin, ez bakarrik genero-ikuspegia txertatzeko lanetan jasotako proposamenak txertatuz, baita ondoren sortzen diren egoeretan ere. Plangintza orokorraren idazketa dirulaguntzarena baino askoz ere epe luzeagoa duen prozesua da denboran. Epe horretan, erredaktore-taldeak etengabeko pultsua du, eta horretan administrazio sustatzaileari argudioak, proposamenak eta aholkuak ematen dizkio.

F.1.3 DIRULAGUNTZARI DAGOKIONEZ

Azken urteotan, HAPOen gutxieneko edukia eta arau-esparrua nabarmen eta geldiezin hazi dira, eta horrek ez du eraginik izan plangintza orokorra idazteko lanetarako lizitazioetan jasotako prezioetan eta epeetan.

Kalitatezko lan orok baliabideak behar ditu, eta genero-ikuspegia txertatzea ez da salbuespena, dokumentuaren arduradun desberdinen (administrazio sustatzailearen eta erredaktore-taldearen) aurretiazko ezagutza-maila eta konpromisoa gorabehera.

Genero-ikuspegia txertatzeko, hainbat lan egin behar dira, kalitate-maila edozein dela ere, eta lan horiek ez dira beti jasotzen ezta baloratzen, daramaten prezioari eta denborari dagokionez, idazketa-prozesuen barne (askotan, diagnostikoa genero-ikuspegitik egiteko oinarritzko dokumentazioa ez da existitzen, ez dago bereizita sexuaren arabera, ez da zehatza edota zaharkituta dago, etab.; herritarren parte-hartzeak berariazko lan osagarria darama; prestakuntza beharrezkoa da eszeptizismoak eta ezjakintasunak presente jarraitzen baitutelako; aurrekoaren ondorioz, asko eztabaidatu behar da alde guztiek bereganatu ez dituzten helburu eta irizpide jakin batzuekin koherenteak diren antolamenduak defendatzeko; araudiak hobetzeak

periodo estival (en el caso de la participación), contradicción entre informes sectoriales y/o controversia por la inadecuación que generan para la autonomía local, etc.).

F.1.2 RESPECTO A LA INVOLUCRACIÓN DE DIFERENTES AGENTES

Es fundamental la implicación tanto de la ciudadanía como del Administración promotora y el equipo redactor, y, por extensión, la participación y la formación.

En el caso de la ciudadanía, por motivos enumerados en reiteradas ocasiones que van más allá del mero cumplimiento de lo establecido legalmente y que ya se han expuesto en el presente trabajo en el presente trabajo, pero que, en resumen, son: la visibilización, el empoderamiento y porque resulta absurdo pensar que puede integrarse de manera adecuada e interseccional la perspectiva de género sin contar, precisamente, con quienes tienen dicha perspectiva, entre otros motivos.

En el caso de la Administración promotora, por ser quien toma las decisiones, no sólo durante todo el proceso de redacción del planeamiento, sino también durante su posterior aplicación.

Y en el caso del equipo redactor, para que la integración se realice con convicción y de manera efectiva, no sólo mediante la implementación de las propuestas recogidas en los trabajos para la integración de la perspectiva de género, sino también en las situaciones que surjan con posterioridad. La redacción de planeamiento general es un proceso mucho más extenso en el tiempo que el de la subvención, durante el cual el equipo redactor mantiene un pulso continuo en el que debe argumentar, proponer y asesorar a la Administración promotora.

F.1.3 RESPECTO A LA EXISTENCIA DE LA SUBVENCIÓN

En los últimos años el contenido mínimo de los PGOU y el contexto regulatorio han crecido de manera notable e imparable sin que ello haya tenido reflejo en los precios y lo plazos contemplados en las licitaciones para los trabajos de redacción de planeamiento general.

Todo trabajo de calidad consume recursos, y la integración de la perspectiva de género no es una excepción, independientemente del grado de conocimiento previo y compromiso de las partes responsables del documento (administración promotora y equipo redactor).

La integración de la perspectiva de género conlleva una serie de trabajos que, independientemente del grado de calidad, debieran realizarse y no siempre están contemplados ni tasados económica y temporalmente dentro de los procesos de redacción (muchas veces la documentación de base para el diagnóstico desde la perspectiva de género no existe, no está desagregada, está sesgada y/o obsoleta, etc.; la participación ciudadana requiere un trabajo añadido y específico; la formación es necesaria porque el escepticismo y el desconocimiento siguen estando presentes; fruto de lo anterior, hay que pelear mucho para defender ordenaciones coherentes con determinados objetivos y criterios no asimilados por todas las partes; mejorar las

denbora darama eta konplexua da; eta abar).

Horregatik guztiagatik, diru-laguntzak, hobetzeko aukera emateaz gain, lanak egiten laguntzen du, bai eta lanen gero eta handiago den prekarizazioaren aurrean. Gainera, eragin argia izan du eta izango du hirigintza-kulturan, eta aurrerapauso argiak ahalbidetu ditu (nahiz eta oraindik lana egon).

F.2 LAN-PROZESUARI BURUZKOAK

F.2.1 METODOLOGIARI DAGOKIONEZ

Plangintza orokorrean, badira eduki substantiboa osatzen duten gai batzuk (etxebizitza, jarduera ekonomikoa, mugikortasuna, espazio libreak, ekipamenduak eta ingurune naturala), eta horiei zeharkako beste gai batzuk gehitu behar zaizkie (genero-ikuspegia, hizkuntzarena, klima-aldaketa...). Genero-ikuspegia zeharka txertatu ahal izateko, beharrezkoa da, gutxienez, eduki substantiboa osatzen duten gaiak jorratzea, horiek baitira antolatu eta arautzen direnak eta plangintza orokorrak horien gaineko eskumena baitu. Ildo horretan, oso garrantzitsua da plangintza orokorrean jasotako zehaztapenen egitura eta loturamaila kontuan hartzea, horiek ezagutzeak eta kontrolatzeak proposamen egingarriak eta koherenteak garatzea ahalbidetzen baitu, haien potentziala ustiatuz, dokumentuaren zuzenketa hutsetik edo alderdi batzuetan osatze hutsetik harago.

Jakina, hain gai ezberdinak eta zabalak direnez, metodologia zenbat eta egituratuagoa, argiagoa eta koherenteagoa izan, orduan eta errazagoa izango da elkarlana, lanen etengabeko ebaluazioa eta inplementatzea.

F.2.2 HERRITARREN PARTE-HARTZEARI DAGOKIONEZ

Herritarren parte-hartzea, irekia izateaz gain, bilatu egin behar da.

Kasu hauetan jendeak parte hartzea are zailagoa da, izan ere, parte hartzeko zailtasun handienak dituzten pertsonak (kontziliazioagatik, mugikortasunagatik, hizkuntzagatik, autonomiagatik, etab.) parte hartzea bilatzen baita.

Horregatik, oso garrantzitsua da eurek sentitzea beraien partaidetza nahi dela eta haien ahotsa entzutea eta aintzat hartzea (hori ez dute sentitzen parte-hartze prozesu orokorretan, ezta genero-ikuspegia parte-hartzearen gai gisa jasotzen denean eta zeharka lantzen denean ere). Berariazko parte-hartzeak herritarrak erre edo nahastu ditzakeen ekintza-kopuru bat planteatzeko arriskua dakarren arren, egia esan, harrera ona izan ohi du eta parte-hartzaileek oso positiboki baloratzen dute berariazko espazio bat izatea, non erosoago edota askatasun handiagoz sentitzen diren gai jakin batzuei buruz hitz egiteko edota horien aurrean euren jarrera

normativas lleva tiempo y es complejo; etc.).

Por todo ello, la subvención, además de brindar una oportunidad de mejora, ayuda a la realización de los trabajos y aporta su granito de arroz frente a una precarización cada vez mayor. Todo ello ha tenido y tiene, además, una clara incidencia en la cultura urbanística y ha posibilitado claros avances (si bien queda camino por recorrer).

F.2 RELACIONADAS CON EL PROCESO DE TRABAJO

F.2.1 RESPECTO A LA METODOLOGÍA

En planeamiento general hay una serie de cuestiones que son las que forman el contenido sustantivo (vivienda, actividad económica, movilidad, espacios libres, equipamiento y medio natural), y a las que se suman otras tantas transversales (la perspectiva de género, la lingüística, el cambio climático...). Para que la perspectiva de género sea integrada de manera transversal es necesario que se traten, como mínimo, las cuestiones que conforman el contenido sustantivo, puesto que esas son las que se ordenan y regulan y sobre las que el planeamiento general tiene competencia. Al hilo, es sumamente importante tener presentes la estructura y el grado de vinculación de las determinaciones contenidas en el planeamiento general, puesto que el conocimiento y control de las mismas posibilita que se desarrollen propuestas factibles y coherentes, explotando su potencial, más allá de una mera corrección del documento o de simplemente complementarlo en algunos aspectos.

Obviamente, al tratarse de materias tan dispares y amplias, cuanto más ordenada, clara y coherente sea la metodología más fácil será el trabajo colaborativo, la evaluación continuada de los trabajos y la implementación.

F.2.2 RESPECTO A LA PARTICIPACIÓN CIUDADANA

La participación ciudadana, además de abierta, debe ser buscada.

La concurrencia en estos casos es todavía más difícil, ya que se busca la participación de aquellas personas que tienen mayores dificultades para participar (por conciliación, movilidad, idioma, autonomía, etc.).

Por ello, es sumamente importante que se sientan apeladas y que su voz va ser oída y tomada en consideración (cosa que no suelen sentir en los procesos de participación generales, ni siquiera cuando la perspectiva de género aparece recogida como uno de los temas de la participación y se trabaja de manera transversal). Si bien la participación específica conlleva el riesgo de plantear un número de acciones que puedan quemar a la ciudadanía o llevar a la confusión, lo cierto es que ha resultado ser algo con muy buena aceptación por parte de las personas participantes, que valoran muy positivamente que se le un espacio específico en el que se sienten más cómodas y/o con mayor libertad para hablar de determinados temas y/o expresar determinadas posturas o enfoques.

edo ikuspegi jakin batzuk adierazteko.

Formatuari dagokionez, eta aurrekoarekin lotuta, egiaztatu da askoz hobeto funtzionatzen dutela aurrez aurrekoek eta hurbilekoek.

Hasierako onespeneren fasean, argi dago talde eragile bat edo ohiko lantaldeak beharrezkoak direla, teknikoki sakontzen delako, eta, lanak aurrera egin ahala, dena gero eta definituagoa baitago. Definizio-maila handiago horrek aukera ematen du askoz zehatzagoa den dokumentazioa erabiltzeko (behin betiko onetsi eta ezarriko denari dagokionez) eta proposamenak gehiago xehatzeko eta. Hala ere, eratzten den lan materiala ezin da eta ez da ezagutzera eman behar jendaurrean jarri aurretik (konfidentzialtasunagatik, zuhurtziagatik (lanaren beste gai batzuegatik aldaketak sortu daitezke, aurretiazko txostenengatik, etab.) eta parte hartzen duten beste talde/erakunde batzuekiko errespetuagatik, herritarrak barne). Horregatik guztiagatik, genero-ikuspegia txertatzeko lanetan parte hartzeko materiala eta fluxuak lantzea beste fase batzuetan baino kontu handiagoz eta helburu zehatzagoekin egitea komeni da.

F.2.3 PRESTAKUNTZARI DAGOKIONEZ

Plangintza orokorraren kasuan, beharrezkoa da plangintza orokorrean genero-ikuspegia nola txertatzen den aztertzea, genero-ikuspegiari buruzko oinarrietatik harago (horiek ere beharrezkoak izan arren). Berez, askotan, zaila izaten da argitzea zer den eta zer ez den Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO) edo Arau Subsidiarioak (AS) inoiz idatzi edo aplikatu ez dituzten pertsonaei; are gehiago, berariazko ikuspegi bat emateko. Genero-ikuspegia HAPO batean txertatzea zer den eta nola egin daitekeen behar bezala eta berariaz azaltzen ez denean, askotan gertatzen da ekarpenak, interesgarriak izan badaitezke ere, ezin direla Planaren bidez jorratu, Planak eskumenik ez duen gaiei buruzkoak baitira.

F.2.4 DIAGNOSTIKOARI DAGOKIONEZ

Kasu guztietan behin eta berriz azaltzen diren hainbat gai daude. Errentari dagokionez, aldea da larrienetakoa, kasu gehienetan gizonen eta emakumeen arteko aldea % 15-25 ingurukoa baita. Eta hortik eratortzen dira, besteak beste, baliabideak eskuratzeko zailtasunak (adibidez, etxebizitza edo garraio pribatua eskuratzeko).

Etxebizitzari dagokionez, kostaldeko udalerrien kasuan, presioa handiagoa izaten da, eta etxebizitzaren prezio altuek, inguruko barne-udalerriekin alderatuta, gaitasun ekonomiko txikiagoa eta etxebizitza lortzeko zailtasun handiagoak dituzten biztanleak (emakumeak, guraso bakarreko familiak, gazteak, etorkinak, etxebizitza erosteari bakarrik aurre egiten dioten pertsonak, etab.) kanporatzeko arriskua daramate. Beraz, beharrezkoa izaten da babes-araubideren baten pean dagoen etxebizitzaren aldeko apustua egitea eta etxebizitza horien tamaina dibertsifikatzea. Programari dagokionez, desegokitzapen argia dago bizitegi-parkearen

Respecto al formato, y ligado a lo anterior, se constata que funcionan mucho mejor los presenciales y cercanos.

En fase de Aprobación Inicial se hace evidente la necesidad de contar con un grupo motor o con los grupos de trabajo habituales, puesto que se trata de una fase en la que se profundiza técnicamente y en la que, a medida que el trabajo avanza, todo está cada vez más definido. Ese mayor grado de definición da la oportunidad para afinar las propuestas y manejar un documento mucho más concreto en cuanto a lo que finalmente se aprobará e implementará; no obstante, ese material de trabajo que se genera no puede ni debe darse a conocer antes de la exposición al público (por confidencialidad, por prudencia (pueden venir cambios desde otros frentes del trabajo, informes previos, etc.) y por respeto a otros grupos/organismos que también toman parte, la ciudadanía incluida). Por todo ello la elaboración del material y los flujos para participar en los trabajos para la integración de la perspectiva de género conviene que sea más cuidadosa e intencionada que en otras fases.

F.2.3 RESPECTO A LA FORMACIÓN

En el caso del planeamiento general, es necesario que la misma aborde cómo se integra la perspectiva de género en el planeamiento general, más allá de los preceptos sobre la perspectiva de género (que también son necesarios). Ya de por sí, a menudo, es difícil esclarecer qué es y que no es un Plan General de Ordenación Urbana (PGOU) o unas Normas Subsidiarias (NNSS) a personas ajenas al trabajo de redacción o aplicación; más aún hacerlo para darle un enfoque específico. Cuando no se explica adecuadamente y de manera específica qué es la integración de la perspectiva de género en un PGOU y cómo puede hacerse, a menudo, sucede que las aportaciones, si bien pudieran resultar interesantes, no son abordables desde el Plan, puesto que se trata de cuestiones sobre las que el Plan no tiene competencia.

F.2.4 RESPECTO AL DIAGNÓSTICO

Hay una serie de cuestiones que se constatan en todos los casos. Una de las más graves es la brecha en lo que respecta a la renta, que en la mayoría de los casos arroja una diferencia entre hombres y mujeres en torno al 15-25 %. Y de ahí las dificultades derivadas, entre otras, para el acceso a los recursos (como, por ejemplo la vivienda o el transporte privado).

Respecto a la vivienda, en el caso de municipios costeros, la presión suele ser mayor y el elevado precio de la vivienda, en comparación con los municipios de interior aledaños, suele conllevar un riesgo de expulsión de la población con menor capacidad económica y mayores dificultades de acceso a la vivienda (mujeres, familias monoparentales, personas jóvenes, inmigrantes, personas que afrontan solas la compra de la vivienda, etc.). Suele ser, por tanto, necesario apostar por la vivienda sometida a algún régimen de protección y diversificar el tamaño de las mismas. En cuanto al programa, hay un claro desacompasamiento entre las características y evolución del parque residencial y las

ezaugarrien eta bilakaeraren eta bizitzeko modu berrien (bizikidetzaren unitateari buruzkoak) ezaugarrien, bilakaeraren eta beharren artean.

Erabileren arteko harremanari eta horien nahasketari dagokionez, ohikoa izaten da ehunaren zati bat "zonning" deritzon teknika nagusi zen unean garatu izana, eta, horren ondorioz, erabileren nahasketa gutxi edo bat ere ez duten eremuak egotea. Horrek arazoak sortzen ditu segurtasunaren pertzepzioan, ordezko mugikortasunerako (oinez eta bizikletaz) eta kontziliatorako, erabilera ezberdinen arteko distantziak handitzen baitira, besteak beste.

Ordezko mugikortasun-sareei dagokienez, oinezkoentzako sarea beti hobetu daiteke, beti baitaude eraiki ziren garaiko parametroak eta kontsiderazioak (egungoen oso bestelakoak) direla eta hobetu daitezkeen tartekak. Eta, bizikleta-bideen sareari dagokionez, normalean sare bat edo ardatz nagusi bat edo gehiago daude, hau da, lehen mailako sare bat existitzen da, egiteke tarte txikiren bat duena, baina auzoetan zehar edota auzoen artean mugitzeko bigarren mailako sarea ez da existitzen.

Ekipamenduei dagokienez, normalean, daudenak hobetu eta handitu behar dira, bai eta genero-ikuspegitik diseinatzeak irizpideak txertatu ere, zaintza-ekipamenduen sarearen zati izan daitezkeen modu eraginkorrean edo zailtasun gutxiagorekin Gainera, ia beti, ekipamendu berriren bat aurreikusteko beharra dago.

Espazio libreei dagokienez, egin ziren garaia ondoz, genero-ikuspegitik landutako diseinu-irizpideak txertatzea beharrezkoa da, haien funtzionaltasuna eta erabilera hobetzeko (batez ere, irisgarritasunari, zaintza-lanei eta sozializazioari dagokienez), eta eremu askotan beharrezkoa da hiri-bilbea harrotzea (espazio libre berriak sortzea) hurbileko espazio libreak sortzeko.

Gobernantzari dagokionez, administrazio sustatzailearen osasuna parekidea izan ohi da politikariei dagokienez. Ez da gauza bera gertatzen teknikariekin, askotan egoera parekidea baita bere osotasunean, baina ez hainbeste zereginen edota mailaren arabera. Erredaktore-taldearen osakerari dagokionez, desberdintasun argia dago plangintza orokorreko lanen idazketaren arloan. Eta herritarren parte-hartzeari dagokionez, parte-hartzeari buruzko atalean lehen adierazitakoa ondoz jartzen da.

F.2.5 PROPOSAMENI DAGOKIENEZ

Aurreko atalean azaldutakoarekin bat etorritik, eta Lurraldearen Antolamendurako Gidalderoen (LAGen) 30. artikuluan jasotako jarraibideez harago, proposamenak helburu nagusi hauetara bideratu ohi dira:

- Bizitegi-parkea ugaritzea, tipologiari, tamainari eta araubideari dagokienez.
- Jarduera ekonomikoaren ezarpen egokia ahalbidetzea eta erraztea, erabilera-nahasketa erraztuz eta bizitegi-bilbea desitxuratzea eta

características, evolución y necesidades de las nuevas formas de habitar (relativas a la unidad convivencial).

En cuanto a la relación entre los distintos usos y la mezcla de los mismos, suele ser habitual que parte del tejido haya sido desarrollada en un momento en que imperaba el "zonning", y, como consecuencia del mismo, haya zonas con poca o ninguna mezcla de usos y ello genere problemas de afluencia y percepción de la seguridad, mayores dificultades para la movilidad alternativa (peatonal y ciclista) y la conciliación al aumentar las distancias entre usos, etc.

En cuanto a las redes de movilidad alternativa, la peatonal suele ser mejorable porque siempre hay tramos de cierta antigüedad en los que los parámetros y consideraciones de la época en la que se construyeron eran muy diferentes a los actuales. Y, en cuanto a la red ciclista, habitualmente existe una red o uno o varios ejes principales, es decir, una red primaria, con algún pequeño tramo pendiente, pero la red secundaria para moverse a través de los barrios y/o entre barrios no existe.

En cuanto a los equipamientos, habitualmente, los existentes necesitan mejoras y ampliación y criterios de diseño desde la perspectiva de género para ello para que formen parte de manera efectiva o con menores dificultades de la red de equipamientos del cuidado. Casi siempre además existe la necesidad de prever alguno nuevo.

En cuanto a los espacios libres, fruto de la época en la que se realizaron necesitan de criterios de diseño desde la perspectiva de género para mejorar su funcionalidad y uso (especialmente, en lo que a la accesibilidad, las tareas del cuidado y la socialización), y en muchas zonas es necesario esponjar la trama para que existan espacios libres de proximidad.

En cuanto a la gobernanza, la composición de la administración promotora suele ser paritaria en la parte política, no tanto en la parte técnica, donde muchas veces lo es en su totalidad pero no tanto según funciones y/o nivel. En cuanto a la composición del equipo redactor, hay una clara desigualdad en el campo de la redacción de los trabajos de planeamiento general. Y en cuanto a la participación ciudadana, remitir a lo expresado en el apartado sobre la participación.

F.2.5 RESPECTO A LAS PROPUESTAS

En consonancia con todo lo expuesto en el apartado anterior, y, más allá de las directrices recogidas en el artículo 30 de las Directrices de Ordenación del Territorio (DOT), las propuestas suelen ir encaminadas a los siguientes objetivos principales:

- Diversificar el parque residencial en cuanto a tipología, tamaño y régimen.
- Posibilitar y favorecer la implementación adecuada de la actividad económica, favoreciendo la mezcla de usos y evitando la deformación de la trama

bizikidetzaz arazoak saihestuz.

- Ordezko mugikortasun/mugikortasun osasungarriko sare irisgarri eta seguruak ezartzea, oinezkoen eta bizikleten mugikortasuna egituratu eta ahalbidetzeko, eta nodo desberdinen arteko lotura ahalbidetzeko (bizitegi-eremuak, jarduera ekonomikoko guneak, ekipamenduak, espazio libreak, ingurune naturala, udalerrri mugakideak...), eta intermodalitatea sustatzea.
- Espazio libreen eta ekipamenduen sarea osatzea, espazio horien eta sarearen arteko harremanari arreta berezia eskainiz. Sozializazio-espazio publikoak sortzea, kanpokoak zein barrukoak, nolabaiteko asmoarekin diseinatuak (baztertxokoak ez direnak) eta diseinuaren, programaren eta kualifikazio-mailaren ikuspegitik egokiak.
- Antolamendu-proposamenak (etxebizitzak, espazio libreak, ekipamenduak edo mugikortasuna, adibidez) genero-ikuspegitik landutako diseinu-irizpideen arabera garatzea.

Helburu horiek, lehenik eta behin, horiekin koherenteak diren antolamendu-eredu eta -estrategia eta -proposamenen bidez gauzatu behar dira, eta, gainera, haien ondorengo diseinua edota garapena egokia edota desiragarria izan dadin baldintza edo parametro batzuk ziurtatuko dituzten arau-proposamenekin osatu behar dira.

Arau-proposamenak erraz erreplika daitezke, eta horietako batzuek araudi aplikagarri berria eragin dezakete (adibide gisa balio dezake Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitzak eta zuzkidura-bizitokiak gutxieneko bizigarritasun-baldintzak eta diseinu-arauak arautzen dituen ekainaren 28ko 80/2022 Dekretua, zeinak, besteak beste, genero ikuspegia txertatzeko egindako zenbait lanetan planteatutako hainbat gai jasotzen baititu). Beraz, dokumentu honen proposamenei buruzko atala irakurtzea iradokitzen da.

Ez da hala gertatzen ereduarekin eta estrategiekin eta antolamendu-proposamenekin; izan ere, tokiari egokitu behar dira, eta berezitasun-maila handiagoa behar dute. Gerta liteke, beste udalerrri batzuetan zentzurik ez izatea, abiapuntuaren edo hasierako egoeraren ondorioz. Kasu honetan, HAPOran dokumentu irakurtzea iradokitzen da, dokumentu hau baino; izan ere, dokumentu hartan jasota daude helburuak, irizpideak eta arauak, bai eta antolamenduak ere, bai egiturazkoa zein xehatuak, hala dagokien kasuetan, eta eredu izan daiteke abiapuntua oso desberdina ez duten antzeko helburuak lortu nahi diren kasuetan.

F.3 ONDORENGO FASEEI BURUZKOAK

F.3.1 ERABAKIAK HARTZEARI DAGOKIONEZ

Plangintza orokorra idazteko prozesua oso prozesu bermatzailea da, eta bertan hainbat eragilek parte hartzen dute: administrazio sustatzaileak (politikari eta

residencial y los problemas de convivencia.

- Implementar redes de movilidad alternativa/saludable accesibles y seguras que estructuren y posibiliten la movilidad peatonal y ciclista, así como la conexión entre diferentes nodos (zonas residenciales, de actividad económica, equipamientos, espacios libres, entorno natural, municipios colindantes...), y fomentar la intermodalidad.
- Completar la red de espacios libres y equipamientos con especial atención a la relación entre los mismos y el mallado. Generar espacios públicos de socialización tanto exteriores como interiores diseñados con cierta intencionalidad (no residuales) y adecuados desde el punto de vista del diseño, el programa y el grado de cualificación.
- Que las propuestas de ordenación (tanto de viviendas como de espacios libres, equipamientos o movilidad, por ejemplo) se desarrollen con criterios de diseño desde la perspectiva de género.

Dichos objetivos deben acometerse, primeramente, mediante un modelo y unas estrategias y propuestas de ordenación coherentes con los mismos, y, además, complementarse con propuestas normativas que aseguren unas condiciones o parámetros para que su diseño y/o desarrollo posterior sea el adecuado y/o deseable.

Las propuestas normativas son fácilmente replicables, pudiendo dar lugar algunas de ellas a nueva regulación aplicable (sirva como ejemplo el Decreto 80/2022, de 28 de junio, de regulación de las condiciones mínimas de habitabilidad y normas de diseño de las viviendas y alojamientos dotacionales en la Comunidad Autónoma del País Vasco, que recoge, entre otras, varias cuestiones planteadas en diversos trabajos realizados para la integración de la perspectiva de género). Se remite por tanto al apartado relativo a las propuestas del presente documento.

No así sucede con el modelo y las estrategias y propuestas de ordenación, puesto que han de adecuarse al sitio, y requieren de una mayor particularización y en otros municipios pueden carecer de sentido debido al punto o la situación de partida. En este caso se remite al documento de PGOU, más que al presente documento, puesto que el mismo pueden verse plasmados tanto los objetivos, criterios y estrategias como las ordenaciones, tanto a nivel estructural como pormenorizado, en los casos que procede, pudiendo servir de ejemplo en alguna situación en la que el punto de partida no sea muy dispar y los objetivos pretendidos se asimilen en cierta manera.

F.3 RELACIONADAS CON FASES POSTERIORES

F.3.1 RESPECTO A LA TOMA DE DECISIONES

El proceso de redacción de planeamiento general es un procesos sumamente garantista en el que intervienen diferentes agentes: administración promotora (parte política y técnica), equipo redactor, administraciones

teknikariak), erredaktore-taldeak, administrazio sektorialak, herritarrak, etab. Horren ondorioz, aldiz, erabaki batzuk hartzea zailagoa da, ez baitago pertsona edo erakunde bakar baten esku. Horregatik da garrantzitsua alderdi pedagogikoa (bai prestakuntza-ekintza zehatzen bidez, bai gainerako partaidetza-ekintzak garatzerakoan), askotan ahaztu egiten baita edo ez baita kontuan hartzen, bai eta ahalik eta eragile gehienen parte hartzea ere.

F.3.2 EZARTZEARI DAGOKIONEZ

Era eraginkorrean ezarri izan dadin, funtsezkoa da proposamenak plangintza orokorraren eskumenekin eta dokumentuaren egiturarekin lerrotzea.

Sarritan, proposamen batzuk baztertu egiten dira, positiboki baloratzen badira ere, ez direlako Planaren eskumenekoak.

Beste batzuetan gertatzen da ezin direla ezarri (bideragarritasun teknikoa, juridikoa edota ekonomikoa dela-eta).

Eta gainerako kasuetan, ez dira ezartzen ez direlako egokitzen jotzen.

F.3.3 JARRAIPENARI DAGOKIONEZ

Jarraipenaz hitz egitean, plangintza orokorraren kasuan, bi jarraipen-une bereizi beharko genituzke: bata, Plana idatzi bitartean, hau da, diru-laguntzaren bidez genero ikuspegia txertatzeko lanak egin diren fasearen ondorengo gainerako faseetan; eta, bestea, Planaren indarraldian, hau da, behin betiko onetsi ondoren indarrean sartzen denean.

Lehen uneari dagokionez (Plana ondorengo faseetan idazten den bitartean), administrazio sustatzailearen eta erredaktore-taldearen inplikazioa eta gaiarekiko duten sentsibilitatea, ezagutza eta konpromisoa erabakigarriak izango dira; izan ere, lehen azaldu bezala, idazketa-prozesua etengabeko pultsua da, eta bertan erabaki ugari hartu behar dira, horietako batzuk aurreikusi ezin diren eta gerora sortutako gaiak buruzkoak. Horiek "bizirik" dagoen dokumentu batean islatzen dira, behin betiko onartu arte alda daitezkeena. Gainera, lehen azaldu bezala, proposamenak ezartzerakoan izandako arrakasta edo porrota, besteak beste, proposamenak dokumentuan behar bezala txertatzearekin lotuta dago (hutsik eta kontraesanik gabe, eta lotura-maila kontrolatuta).

Bigarren uneari dagokionez, aplikatzearen arrakasta edo porrota dokumentuaren interpretazioari lotuta dago; eta gauzatzean izandako arrakasta edo porrota unean-uneke egoerari, bai eta, zoritxarrez eta noizean behin, diziplina kontuei ere. Horrek guztiak, jakina, jarraipenean eragiten du, eta hobetu beharreko akatsaren edo gaiaren arabera modu batera edo bestera jokatu beharko litzateke.

Unea gorabehera, eskalaz jaitsita, hiriaren zehaztapen formala eta eraikuntza- eta urbanizazio-proiektuen eskalan garatu gabe geratu ohi da, baita eskalarekin bat datozen neurriak ezarri gabe. Horregatik da garrantzitsua

sectoriales, ciudadanía, etc. Lo cual hace que, en contrapartida, algunas decisiones se compliquen, puesto que no dependen de una única persona u organismo. De ahí la importancia de la parte pedagógica (tanto mediante las acciones formativas específicas como durante el desarrollo de las distintas acciones de participación), puesto que es algo que muchas veces se olvida o no está presente, y de la implicación de la mayor variedad posible de agentes.

F.3.2 RESPECTO A LA IMPLEMENTACIÓN

Para que la implementación sea efectiva es fundamental que las propuestas se alineen con las competencias del planeamiento general y la estructura del documento.

A menudo, algunas propuestas se descartan porque, si bien, se valoran positivamente, no son competencia del Plan.

En otras ocasiones sucede que la implementación no es factible (por una cuestión de viabilidad técnica, jurídica y/o económica).

Y el resto de casos en los que no se procede a su implementación porque no se estiman oportunas.

F.3.3 RESPECTO AL SEGUIMIENTO

Al hablar del seguimiento, en el caso del planeamiento general, debiéramos diferenciar dos momentos de seguimiento diferentes: uno durante la redacción del Plan, es decir, en el resto de fases posteriores a aquella en la que se han elaborado los trabajos para integrar la perspectiva de género mediante la subvención; y, otro, durante el período de vigencia del Plan, es decir, una vez entra en vigor tras su aprobación definitiva.

Respecto al primer momento (durante la redacción del Plan en fases posteriores), la implicación de la administración promotora y del equipo redactor y su sensibilidad, conocimiento y compromiso con la materia serán determinantes, puesto que, tal como se ha expuesto anteriormente, el proceso de redacción es un pulso continuo en el que hay que tomar numerosas decisiones, algunas de ellas sobre cuestiones sobrevenidas difíciles de prever, que se plasman en un documento "vivo", susceptible de cambios hasta su aprobación definitiva. Además, tal como se ha expuesto, el éxito o fracaso en la implementación de la propuestas va ligado, entre otras, a la adecuada integración técnica en el documento (sin vacíos ni contradicciones, y con control sobre el grado de vinculación).

Respecto al segundo momento, el éxito o fracaso en su aplicación va ligado a la interpretación del documento; y el éxito o fracaso en la realización depende tanto de la coyuntura como, por desgracia y de manera puntual, de una cuestión de disciplina. Todo ello incide, obviamente, en el seguimiento, puesto que según cuál sea el fallo o la cuestión a mejorar que se haya detectado debiera procederse de una manera u otra.

Más allá del momento, bajando de escala, la concreción formal de la ciudad y la escala del proyecto de edificación y urbanización y se quedan sin desarrollo sin implementar medidas acorde a su escala. De ahí la importancia de que el plan general contenga

plan orokorrak arau-zehaztaperen lotesleak jasotzea.

Nolanahi ere, ez dago Plan Orokorraren egikaritze-mailaren jarraipenik edo monitorizaziorik, garapen-plangintza salbu. Plan Orokorreko beste gai batzuetarako ere ez dago jarraipen-metodologiarik, ezta haren egikaritze-mailari buruzko adierazlerik ere. Komenigarria litzateke modu ofizial eta adostuan horiek zehaztea.

determinaciones normativas vinculantes.

En cualquier caso, no hay un seguimiento o monitorización del grado de ejecución del Plan General, salvo que haya planeamiento de desarrollo. Tampoco para otras cuestiones del Plan General hay una metodología de seguimiento ni indicadores acerca de su grado de cumplimiento. Sería conveniente determinar los mismos de manera oficial y consensuada.